

## Barriola, biharko zalantzan

Min hartu zuen igandean ▶ 7



# Sei zuhaitz berri landatu dituzte Amezketako San Martin parkean

**ZUHAITZ EGUNA** ▶ Zuhaitz Eguna izan zuten atzo Zumadi eskolako ikasleek eta irakasleek ▶ 6



Zumadi eskolako ikasleak atzo goizean zuhaitzak landatzen San Martin parkeko zelaietan. NOELIA LATABURU



IMANOL GARCIA

## Aurpegi eta soinu berria San Millango organoari

**ZIZURKIL** ▶ Bi hilabetetan aritu dira Hernaniko bi artisau zaharberritze lanetan; utzikeria da instrumentuaren arerio nagusia ▶ 5

**TOLOSA** ▶

## Tolosa Kup txapelketan izen-ematea zabalik da

Igandean amaituko da epea ▶ 3

**INAZIO AGIRRE** ▶  
BATASUNA

«Demokrazia eta bakearen bideak irabaziko du»

EHAK-k baldintzatuko duela uste du ▶ 2



NOELIA LATABURU

## ARMA eta GIDA



### baimenak



- Zitarik gabe
- Zure tramitazioa azkartzen dugu
- Donostiarako joan-etorriak ekiditzen ditugu
- Etxean jasoko duzu baimena

R.P.S 401/04

### 'SAN INAZIO' MEDIKU ZENTROA

San Inazio 2 (Muñazabal Altzarien ondoan) • TOLOSA

15:30etik 19:00etara

INAZIO AGIRRE ▶ BATASUNAKO HAUTAGAIA



# «Demokrazia eta bakearen bideak irabaziko du hauteskundeetan»

EHAKren emaitzek hauteskunde hauek baldintzatu egingo dituztela adierazi du Inazio Agirrek

IÑIGO TERRADILLOS

Inazio Agirre tolosarra Batasunak aurkeztutako zerrendetan Gipuzkoako 19. hautagaia da. Ilegalizazioa dela eta Batasunak ezingo du hauteskundeetan aurkeztu, baina Euskal Herrialdeetako Alderdi Komunistaren aldeko bozka eskatu du. Apirilaren 17ko hauteskunde-  
ei begira, egoera politikoaren inguruan mintzatu da Agirre HITZAREKIN.

**Batasunak aurkeztutako zerrendetan, Gipuzkoako 19. hautagaia zara, baina ilegalizatua izan ondoren hau ez da posible izango.**

Euskal Herriak egoera ez demokratikoa bizi du. Hor daude, batetik, hauteskundeetan ikertu diren 33.000 herritarren eskubide zibil eta politikoen urraketak, sinadura emateagatik Aukera Guztiak aurkezteko; eta, bestetik, Batasuna eta Aukera Guztiak legez kanporatzeak. Demokrazia eraikitzeak lehentasuna du eta EHAKren botoak horretarako erabiliko dira. Bestalde, Euskal Herriaren autodeterminazioa bultzatzen ari gara. Euskal Herriak gatazka politikoa bizi du Espainia eta Frantziarekin. Espainiak eta Frantziak Euskal Herriaren izate bera eta Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea ukatzen dituzte. Jasaten dugun gatazka jarrera bortitz horren ondorio da. Beraz, bakea eraikitzeak lehentasuna du. EHAKren botoak horretarako erabiliko dira.

**EHAKren ilegalizazioa ere eskatu dute.**

PP-PSOE legez kanporatzaileak dira, ilegalizatzaileen blokea osatzen dute. EAJ-EA, Aralar eta IU, berriz hitzez alderdi legezaren aurka daude, baina etekinak aterata eta egoera bultzatzen dute. *Apartheid*aren blokea osatzen dute eta zentzu honetan deigarriak izan dira EAJ, EA eta IUrengan sortu den egonezian EHAKren zerrenda lege barruan egoteagatik.

**Zein da bien arteko erlazioa, hau da, Batasuna eta EHAKren artekoa?**

Ez dago inolako erlaziorik, ez



NOELIA LATABURU

ideologikoki ezta politikoki ere. Gatazka konpontzearen ildoan sintonia dago eta Batasunarentzat lehentasun osoa du uneotan gatazka gainditzeak.

**Inkesten arabera EHAK-k eserlekuak lortuko lituzke Legebiltzarrean. Bermatuko al du horrek ezker abertzaleak ordezkaritza izatea?**

Inkesta egokiena apirilaren 18ko datuak izango dira. Hala ere, gu ziur gaude EHAKren emaitzek hauteskunde hauek baldintzatu dituztela bakea eta demokraziarantz aldaketa politikoa eta autodeterminazioaren ildotik. EHAKren botoak Anoetako apustua bideratzea eta ezker abertzalearen solaskidetza indartzeko baliagarriak izango dira.

**Zein da zuen legealdi honetako balorazioa?**

Legez kanporatzea eta bazterketaren legealdia izan da. Sasi demokrazia ukatzerainoko atzerapausu larriak eman dira. Jaurlaritzaren eta hirukoaren lehentasuna ez da izan gatazkaren konponbidea. EAJ, EA, eta IU alderdien interesak Euskal Herriaren interesen gainetik jarri dira. Lege garrantzitsuak aurrera ateratzeko ga-

raian ere, ez dute ezker abertzalearekin hitz egin nahi izan. Beraz, gure balorazioa oso eskasa da.

**Zein izan da Batasunaren lana legealdi honetan?**

Oso positiboa izan da, Euskal Herriaren alde begira jokatu dugulako. Batasuna muturrean eta ezetzaren blokean kokatuta dagoela diote, baina ez da egia. Batasuna inoiz baino autozentratuago ari da jokatzen Euskal Herriaren eskubide guztiaren alde eta foro guztietan ari da lanean iniziatiba politikoa erekin. Hiru adibide: Anoetako proposamena, *Orain herria orain bakea*, Nazio Etbabidagunean eragile sozial eta alderdien mahaia abian jarri eta gatazkaren konponbiderako Oinarrizko Hitzarmen demokratikoa lortzea, Ibarretxe Planak geure botoei esker egin zuen aurrera eta Zapaterori zuzendutako gutuna.

**Batasunaren lehentasuna zein izango da?**

Gatazkaren konponbidea. Demokrazia eta bakea eraikitzea da guretzat lehentasuna. Euskal Herriaren, demokrazia eta bakea txanpon beraren bi aldeak dira. Zein mailatan gera-

tzen dira alderdien programei buruz aritzeak guztiak defendatu ezin direnean? Herritarren eskubide zibil eta politikoa ezabatzen direnean? Eta alderdiak legez kanpora bazterten direnean? Oinarrizkoa jokoan dagoenean ez da alderdi bakoitzak bereari begiratzeko garaia, guztiontzat ezinbestekoak diren gutxieneko demokratikoen alde jokatzeakoa baizik. EHAKren botoak horretarako erabiliko dira. Alabaina, demokrazia eta bakea eraikitzeak lehentasuna izango badute ere, ezkerreko politika, justizia soziala, emakumeen eta gizonezkoen arteko parrakidetasuna, euskararen normalakuntza, ingurumen politika... bultzatzeko ere erabiliko dira. Abertzale, ezkerreko eta aurrerakoi den orok aukera ederra du EHAKri botoa emateko. EHAKren aldeko botoa gatazka gainditzeko, bakea eraikitzeko eta ezkerreko politika burutzeko apustua da.

**Zer nolako garrantzia dute hauteskunde hauek?**

Erabateko garrantzia dute, bakearen eta demokraziaren atea behin betiko irekitzea edo denbora luzerako ixtea baitago jokoan. Bakea lortzeko, lehendabizi, hauteskundeetan gehien go duten demokratikoen irabazi behar du, hauteskunde ondoren negoziazio prozesua abiarazteko, bestela, aukera historikoa alferrik galduko genuke. Horregatik, hauteskunde hauetan bi gako nagusi daude: batetik, egoera ez demokratikoa, eskubide zibil eta politikoen urraketa erabatekoari eta, horren barruan, legez kanporatzei boto bidez nola eginen diegun aurre, eta bestetik, boto bidez konponbidea eta bakea eta Euskal Herriaren autodeterminazioa nola lortzen ditugun. Bi negoziazio metodo ezberdinen arteko aukera dago jokoan; bata Ibarretxerena, orain 25 urte bezala, Madril lekin euskal herritar guztiaren izenean hitz egin eta bere alderdiaren interesak negoziatu nahi ditu. Bestea, Batasunak Anoetan egin zuen konponbidearen proposamena da. Hiru urrats eman behar dira; Lehenik, Euskal Herriaren akordio bat egin behar da, bigarrenik, akordio hori errespetatuz negoziazio prozesu bat ireki behar da Espainiako eta Frantziako gobernuarekin, eta hirugarrenean, berriz, akordio horren inguruan herriari galdetu behar zaio.

**Nondik nora ibiliko dira emaitzak?**

Nire ustez demokrazia eta bakearen bideak irabaziko du. Eta hitz jokoan eginez, pakEHAK du giltza, eman hitza.

## TELEFONOAK ▶

### LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 69 24 23

**Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61

**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34

**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29

**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20

**Leizta.** Osasun z.: 948 510800

**Lizartza.** Medikua: 68 20 77

**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Erantzaitza: 53 88 20

**Villabona-Aiztondo.**

Anbulatorioa: 00 69 70

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

### GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leizta): 608 873016

### EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leizta): 948 61 07 76

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Santamaria, I. Nafarroa

etorbideta 2 (Tolosa)

943 65 46 10

Plaza, M. Elbarren 36 (Leizta).

112

### TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.

tolosaldea\_public@tolosaldeko

hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

**Anoetaaldea.** 687 41 00 22

anoetaaldea@tolosaldeko-hitza.info

**Ibarraldea.** 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

**Leiztaldea.** 687 41 01 18.

leiztaldea@tolosaldeko-hitza.info

## ZUZENKETA ▶

Atzoko elkarrizketan, azken galderan hau zen Onintza Lasak esan nahi zuena: «Ez dut nire burua sailburu bezala ikusten. Legebiltzarkide izateko aurkezten naiz. Garrantzitsuena da zauden lekuan lan txukuna egitea.»

TOLOSA KUP ▶

# Tolosa Kup: futbola aitzaki, koadrilen arteko elkargune

Hilaren 23an hasiko da 2005eko Tolosa Kup futbito txapelketa; igandean amaituko da izena emateko epea

LEIRE MONTES

Tolosa Kup arrakastatsuen hirugarren edizioa hastear da. 700 bat lagun elkartu ditu bi urtetan, futbito txapelketa aitzakitzat hartuta. Aurten, antolakuntza aldatu egin da. Baina lekuko hartu dutenek «aurretik egindako lan onari jarraipena» eman nahi diote. Eta, lehen bezala, Tolosa Kup («koadrilen arteko elkargune») izateko helburuarekin ari dira buru-belarri lanean.

Hilaren 23an, larunbata, hasiko dira partidak. Aurrekoetan bezala, Uzturpe kiroldegian (Santa Luzia) jokatuko dira, asteburuetan. Izen-ematea igandea bitarte dago zabalik. Eta datorren ostegunean, hilaren 21a, egingo dute talde guztien arteko bilera, 20:00-etan, Kultur Etxean; partidaren zozketa, arauen azalpena eta txapelketaren nondik norakak azalduko dituzte bertan, eta talde bakoitzeko gutxienez ordezkari bana bilerara joatea eskatu dute antolatzaileek.

Lagun koadrila horrek («parte-hartzaile guztien inplikazioa») bultzatu nahi du Tolosa Kup-en. Era berean, ezarritako arauak («zorrotz») beteko dituela azaldu du, «txapelketaren funtzionamendua ona izan dadin, eta partidetatik haratago, koadrila askoren arteko ekin-tza delako hauxe».

Horregatik, zenbait berrikuntza izango ditu aurtengo txapelketak. Batetik, taldeak beraiek izango dira epaileak: «partida bakoitza hurrengo jokatu duten bi taldeek arbitratuko dute. Eta ez badute hala egiten, jokatu beharreko partida galdutzat emango zaie». Gainera, «elkarren arteko errespetua gal ez dadin», talderen batek jokaera desegokia erakusten badu kanporatu izan daiteke.

## Izen-ematea, postaz

Iaz izandako galerak ikusita, aurten kuota egin dute: taldeko, 75 euro ordaindu behar da izena ematerakoan. Gainera, aurten posta elektronikoz eman behar da izena: tolosa-



Tolosa Kup 2005 futbito txapelketa iragartzen duen kartela. HITZA

## ARAUAK ▶

### Izen-ematea.

tolosakup@hotmail.com helbide elektronikoa. Igandea, hilaren 17a, da izena emateko azken eguna. Mezua bueltatuko dute antolatzaileek, ordainketa, bilera egunak, arauak eta bestelakoak azaltzeko.

**Ordainketa.** 75 euro, antolatzaileek emandako kontu korrantean. Ingresoa bileraren egunerako egin behar da; bilera hasieran azken aukera emango da, talderen batek oraindik oraindu ez badu. Hortik aurrera, ordaindu ez duten taldeak ez dira partidaren zozketan sartuko eta ezin izango dute txapelketan parte hartu.

**Sinadura orria.** Nahitaezkoa da taldekideen sinadura orria bileraren egunean, hilaren 21ean, osatua aurkeztea. Orri horren bitartez, antolakuntzak txapelketan egon daitezkeen

kup@hotmail.com helbidean, hain zuzen ere. «Horrela egitea pentsatu dugu, jendeak bere aldetik jarri behar izateko eta seriotasuna bilatu nahian». Izena eman duen taldeari konfirmazio mezua bueltatuko zaie; bertan, dirua non ordaindu behar duten, bilera eguna noiz den, eta txapelketaren arauak azalduko zaizkio, besteak beste. «Bileraren egunerako ordainagiria ez duen taldeak ezin izango du txapelketan parte hartu».

gertakariengan inongo ardurarik ez duela izango onartzen dute taldekideek. 18 urte azpikoek gurasoen sinadura beharko dute.

**Arbitrajea.** Partida bakoitza hurrengo norgehiagoka jokatu duten bi taldeek arbitratu beharko dute. Haien ardura izango da ere partidaren emaitza apuntzea. Arbitratzea egokitzen zaionean talderen bat agertuko ez balitz, inongo justifikaziorik gabe, segidan jokatu beharreko partida galdutzat emango zaio.

**Errespetua.** Arbitratza den ardura denez, ezinbestekoa izango da txapelketa osoan ahalik eta errespetu handienarekin jokatzeko, bai aurkariengan eta baita epailearengan ere. Horrela, talderen batek jokaera desegokia erakutsiz gero, kanporatuta izan daiteke.

## Tabernariak eta Udala

Tabernarien eta Udalaren laguntza izango du Tolosa Kup-ek. Lagundu duten tabernariak horixe azaltzen duen pefigina izango dute ikusgai.

Laguntza horiekin guztiekin, iaz bezala txapelketaren festa antolatu nahi dute antolatzaileek maiatz bukaera alderako. Sanjoanetako Koadrila Egunean amaituko da Tolosa Kup 2005. «Ea denon artean txapelketa ona antolatzen dugun!».

MUSIKA ▶

## Berri Txarrak-en kontzertua bertan behera

Bonbereneakoek jakinarazi dutenez, Berri Txarrak taldea larunbatean etxean eskaintzekoa zen kontzertua bertan behera geratu da. Gorka Urbizu taldeko abeslaria «sasoi betean ez» dagoela-eta ez dute kontzerturik eskainiko nafarrek.

KZGUNEA ▶

## Kutxanet mintegiak KZgunean

Amarozko KZgunean ikastaroak eta mintegiak ari dira egiten hilabete honetan. Gaur, esaterako, *Kutxanet enpresak I: Kutxarekiko zure kontuak kudeatzen* izeneko mintegia eskainiko dute KZgunean, 17:00etatik 19:00etara. Eta bihar ere izango du jarraipenik saioak; izan ere, ordu eta leku berean, *Kutxanet enpresak II: sortak, txeeak, koadernotxoak...* izeneko mintegian parte hartzeko aukera izango da.

SANJOANAK ▶

## Bordondantzan ateratzeko entseguak

Datozen sanjoanetan Bordondantzan atera nahi duenarentzat, entseguak gaur bertan hasiko direla jakinarazi dute Udaberri dantzari taldekoek. 20:30ean da hitzordua, Igarondo igerilekuan. Hemendik aurrera, ostegunero egingo dituzte entseguak.

ERLIJIOA ▶

## Bokazioen alde otoi egitea Santa Klaran

Bizitza Sagaraturako bokazioen alde, mundu osoan egiten den ekitaldia presatzeko Tolosako Artzipres-taldeak bokazioen alde otoi egitea egitera deitzen ditu inguruko eliztar guztiak. Bihar, ostirala, 20:00etan izango da otoi egiteko ekitaldia Tolosako Santa Klara monastegian. Ekitaldi honetara denak daude gonbidatuta.

MENDIKO BIZIKLETA ▶

## Gorka Telleria 2. Euskadiko Openeko lehen lasterketan

Mendikuteko Ramon Lekuona 2. beteranoen mailan, eta Kepa Ganuza 21. elite mailan

L. MONTES

Euskadiko Open-eko lehendabiziko lasterketa jokatu zen asteburuan Izkuen (Nafarroa), eta Tolosako txirrindulariek maila ona erakutsi dute.

Gorka Telleria tolosarrak bigarren postua lortu zuen 23 urte azpikoen mailan. Bilboko Bizezona-Alpinestars taldearekin ari da egun Telleria, baina Tolosako Mendikute taldean korritu du urte askotan. Vincent Martinezek (Scott) irabazi zuen proba.

Elite mailan, Kepa Ganuza tolosarra (Mendikute) 21. postuan sailkatu zen. Bere lehen lasterketa zen; izan ere, aurten hasi da mendian korritzen, orain arte karreteran aritu izan baita.

Beteranoen mailan, azkenik, Ramon Lekuona (Mendikute) bigarren iritsi zen helmugara. Lezokoa da Lekuona, eta aurten hasi da Mendikuterekin korritzen. Gainerakoak erretiratu egin ziren.

XAKEA ▶

## Beste garaipen bat Ligan Tolosa-Ibarra taldekoentzat

L. MONTES

Aste Santuko etenaldiaren ondoren, xakeko Gipuzkoako Ligako hamargarren jardunaldia jokatu zen asteburuan. Ibarra-Tolosa taldeak Erreterian jokatu zuen, hango Fomento-Beraun taldearen aurka. Eta ez ziren esku hutsik itzuli: 1-3 irabazi zuten Tolosaldekoek. X. Mujikak, J. Barojak eta I. Muxikak lortu zituzten puntuak Tolosa-Ibarrako taldearentzat. Datorren larunbatean, Ligako azken txanda jokatu dute xakelariak. Ibarra-Tolosakoek Hondarribiako Marluxa taldearen bisita jasoko dute etxean. Partida irabazi eta txapelketa goiko postuetan amaitzeko itxaropentsu dira.

ARETO FUTBOLA ▶

## 6-3 irabazi dio Laskorainek Pitiri

21 jardunalditan ez du porrotik ezagutu Basauriko Piti-Pascual taldeak

### I. ETXEBESTE

«Sekulako garaipena, ahaztezi-na» eskuratu zuen Laskorainek larunbatean «Berazubiko ohol zaharkitu bezain maitagarrian». Ikastolako mutilek Piti Pascual lider «ahaltsu eta lepatentea» makurrarazi zuten denboraldi honetan estreina-koz, 6 eta 3, hiru puntuak «denboraldi oso bat gozatzen duten horietakoak izan zirela». Areta futboleko Laskorainen historia jasotzen duen liburuak badu, dudarik gabe, urrez idatzirik orrialde berri bat.

Oso zaila aurkezten zen horitxoentzat partidua. Txapelketako aurrekonturik aberatsena duen Piti Pascual zetorren Tolosara, sailkapeneko burua, 21 jardunalditan 18 garaipen eta 3 berdinketa zeramatzen lider sendoa. Basaurikoak, ordea, egun handietako Laskorainekin topatu ziren, horrelako erronkak oso gogoko dituen Laskorainekin, horrelako neurketak nola jokatu ederki asko dakien Laskorainekin. «Usabalgo harrobiko ADNan azaltzen da dena argi eta garbi adierazia». Berazubin, beraz,

eta liderraren aurrean, horitxoek denboraldiotan ezagun izan dituzten ezaugarriak erakutsi zituzten berriro ere, neurketak irabazteko oso baliagarri eta aproposak diren lanabesak: konzentrazioa eta talde lana defentsan, ahalmen fisikoa eta adimena erasoan.

Partida hasieran Pitikoek sartutako golari bikain erantzun zioten atsedenaldirako markagailuan 2 eta 1koa ipiniz. «Bi golen jokaldiak Pitikoen presio marraren bizkarrera jaurtitako baloien bitartez erri ziren». Lehenengo pasea

Saldiasek barkatuko ez zuen penaltian bukatu zen, Amatriainek «modu majikoan» buruturiko bigarrenengo pasea, aldiz, Telletxea kadeteak baliatuko zuen gol eder bat sinatzeko.

Bigarrenengo zatian Pitikoen erreakzioa etorri zen binako berdinketarekin batera, baina lau minuturen faltan eta hamar metrotatik Altuna «perla ilehoriak» aurretik ipiniko zuen Laskorain berriro ere. Minutu bat beranduxeago, gainera, berriro ere Altuna pitxitxiak eta berriro ere hamar metrotatik, alde 4 eta 2ra handituko zen, Pitikoak atezain-jokalariekin jokatzera behartuaz. Honela, azken une horietan beste hiru gol ikusi ahal izan ziren, «Barriola puxika margolariak» egin zituelarik aulkitxo hori-

txora eta harmailetara zorame-na eramango zuten azken biak. Amaierako 6 eta 3koa bidezkoa suertatu zen, Tolosako areto futbol taldeko kideen hitzetan.

Piti Pascualek porrota ezagutu zuen azkenean Javi delegatuari, Egizabal entrenatzaileari eta Domentxe, Telletxea, Saldias, Alonso, Barriola —hasierako bostekoa—, Yustos, Alituna, Amatriain, Gil, Zubillaga eta Urko jokalariei eskerrak.

Laskorainen beste hiru taldeetatik bik galdu egin zuten, Josetxo Otxoaren mutiak izan zirelarik partida irabazi zuten bakarrak. 3 eta 2 Interri neurketa ederra jokatu ondoren. *El Pibe* Maiorga atezainaren debut itxaropentsua izan zen neurketaren ezaugarrik garrantzitsuenetakoa.

ARETO FUTBOLA ▶

## Hegoaldeko puntu bat gehiago eskuratu du

Gironellaren kontrako partiduan garaipena eskuartean izan zutela diote; binako berdinketarekin bukatu zuten neurketa

**50 IBILBIDE FAMILIA ETA LAGUN ARTEAN**

Apirilaren 24tik aurrera

egunero ibilbide bat **DOAN BERRI**arekin



Laguntzaileak:



Euskaldunok behar dugun

berria

### HEGOALDE ▶ 2

#### GIRONELLA ▶ 2

**Hegoalde K.E.** Nerea Arana, Maider Lopez, Isa Barrio, Nerea Salazar eta Miriam Arana —hasierako bostekoa—; Edurne Agirretxe, Amaia Azpilikueta, Itziar Aldezabal, Esther Videra, Gemma Zelaia eta Naiara Mayo.  
**Entrenatzailea:** Maite Argote.  
**Gironella.** Laura Fernandez, Anna Costa, Susana Soler, Berta Velasco eta Clara Costa —hasierako bostekoa—; Cristina Moreno, Monsterrat Ramos, Gemma Armengol, Claudia Pons, Laura Escayola, Laura Rodriguez eta Silvia Parra.  
**Golak.** 1-0: Nerea Salazarrek (5m.); 1-1: Silvia Parrak (6m.); 1-2: Susana Solerrek (24m.); 2-2: Maider Lopezek (36m.).  
**Epaileak.** David Pascualena, Juan Jose Señas eta Naroa Diaz.

#### IRATXE ETXEBESTE

Espainiako Ligako hogeita bigarren jardunaldiko partidua jokatu zuen Hegoalde areto furbol taldeak joan den larunbat arratsaldean Berazubin Bartzelonako Gironella taldearen kontra, non «Kataluniako jokatzeko moduaren beste erakustaldi bat» egin zuten Gironellakoek: borrokak, prestakuntza onak eta elkar jokoak berebiziko garrantzia izan dute kataluniarrentzat azken urteotan, eta ildo beretik egin zuten lan larunbatean ere. Ohorezko Mailan eskarmentu handirik gabeko taldea da Gironella,

baina, hala eta guztiz ere, Espainiako Txapelketako azken faseetara heltzea lortu du beti.

Etxekoak izan ziren baloia-aren jabe partidu hasieran, eta berehala egin zuten Hegoaldekoek Nerearen eskutik lehen gola ekarriko zien jokaldi bikaina. Kataluniarrek, burua makurtu beharrean, indar hartu zuten kantxan, eta minutu bakar baten ostean egin zuten berdinketa, etxekoek defentsaren hutsegiteaz baliatuz. Silvia Parrak agerian utzi zuen teknika eta abiadura bizia. Eta hortik aurrera hasi zen neurketa itxura hartzen: borroka irekia, etenik gabeko erritmo aldaketak, bi taldeentzat gol aukerak eta helburu bera: garaipena.

Azken norgehiagoka guztietan gertatzen ari den bezala, atsedenaldirako tolosarren joko pixka bat hobetzeko balio izan zuen. Hala ere, defentsaren beste hutsegite bat aski izan zen aurkariaren gol berri bat jasotzeko. Entrenatzaileak zioen horixe dela Hegoalderen «denboraldi irregularra» mar- katzen ari dena: gorabeherak kontzentrazioan, alegia.

Etxekoek, hobeto jardunagatik eta markagailuan atzean izanagatik, ahalegin berezia egin zuten «gola sartzea oso zaila den taldeari» irabazteko, eta helburua lortu ez arren markagailuan binako berdinketa ezarri zuten. «Garaipena ez genuen eskuratu, baina eskuartean izan genuen, joko eta gol aukerak aintzat hartzen baditugu».

Finean, partidu ona egin zuten Hegoaldekoek, eta puntu bat gehiago eskuratu dute sailkapenerako. Asteon Goierriren kontrako derbirako prestatzen ariko direla iragarri dute.

ZIZURKIL ▶ GIZARTEA

# San Millan parrokoiko organoak aurpegi eta soinu berria du

Bi hilabete eman dituzte Alejandro eta Agustin Usabiaga artisauek elizako instrumentuaren zaharberritzea burutzen



Organoaren teklatura aurrean eta atzean XVIII. mendeko egurrezko kaxa hodiekin. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Zizurkil Goian dagoen San Millan parrokoiko organoa txukuntzen aritu dira azken bi hilabeteotan Alejandro eta Agustin Usabiaga osaba iloba hernaniarrak. Gipuzkoan artisauek gutxi batzuk daude organoak konpontzen aritzen direnak. Konponketa egitea parrokoiko juntak erabaki zuen, Jesus Mari Olano parrokoak HITZARI azaldu dionez: «Azkenaldian organista bat etortzen denez laguntzera, ikusi genuen komeni zela organoa modu egokian jartzea».

A. Amezua y Cia. Hernaniko enpresak egin zuen organoa 1937. urtean. Bi teklatu ditu, 56 notakoak, eta 30 notako pedala. Zaharberritze sakona egin dute organoan. Instrumentuak guztira dituen 752 hodiak garbitu dituzte eta fatxadan dau-



Alejandro eta Agustin Usabiaga organo konpontzaileak. I. GARCIA

den 43ak berriz margotu dira. Garbiketa orokorra ere egin dute eta horretarako organoa guztiz desmuntatu behar izan dute. Egindako lanen artean motor-haizagailuaren aldaketa izan da. Oraingoak haize gehiago bidaltzen du hauspoetara eta isilagoa da. Sitsaren aurka egin beharreko tratamendua ere sakona izan da. Izan ere, organoa 1937. urtean egindakoa bada ere, aurretik zegoen organoaren egurrezko kaxa mantentzen da oraindik. Kaxa hori XVIII. mendekoa da. Hauts dezente zuen organoak eta baita xaguzaharrek utzitako hondakinak ere. Teilatua konpondu ondoren aldegin zuten xaguzaharrek, baina egon zirenen bitartean nahiko zikinkeria utzi duten hodiegan.

## Utzikeria, arerio nagusia

«Sitsa eta utzikeria dira organo baten arerio nagusienak» diote osaba-iloba artisauek. «Instrumentua ez jotzeak eragin txarra izan dezake». Ondo mantentzeko, beraz, organoa jotzea komeni dela azaldu zuten hernaniarrek.

Garbiketa eta konponketa lanak egin ondoren, armonizazioa ere egin beharreko garrantzitsua da. Diapasona eta belarri fina erabiltzen dute horretarako. Lehenengo neurtzen dutena hodi bakoitzaren intentsitatea eta indarra izaten da. Ondoren, armonizazioa egin behar izaten da, hau da, hodi bakoitzak eman beharreko nota ematea. Eta, noski, guzti hori instrumentuaren 752 hodi bakoitzean.

Jesus Mari Olanok azaldu duenez hiru finantziazio iturri izango ditu konponketak. Alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak diru kopuru bat izaten du horrelako kasuetarako. Gotzaitegiak ere bere kopurua jartzen du eta herritarrei eskari berezia egingo zaie. «Horrelako gauzak mantendu behar dira», adierazi du Olanok. «Asko laguntzen du elizkizunetan».

Dagoeneko artisauek beren lanak bukatu dituzte eta orain Gotzaitegiko komisio bat —organista ezagunetz osatua— joango da organoaren egoera ikuskatzera. Olanok azaldu duenez, organo kontzertu bat antolatzeko asmoa ere badago, instrumentuaren soinu berriarekin gozatzeko.

IBARRA ▶

## Xepla elkartearen liburu aurkezpena Kultur Etxean

Xepla elkarteak 25. urteurreneko liburuaren aurkezpena egingo du gaur Kultur Etxean. 20:00etan egingo da ekitaldia eta ondoren *luncha* eskainiko da elkartearen. Liburuan argazkiak dira nagusi eta elkartearen izenarenean etreserkiaren nondik norakoa eta urte hauetan egindako ekitaldiak azaltzen dira.

ANOETA ▶

## Begiralea izango da gaur KZgunean

Tutorearen bisita izango da gaur KZgunean. 16:00etatik 20:00etara egongo da tutoria eta bisita aprobetxatuko da *Flashget* programaren mintegia egiteko. Mintegia 17:00etatik 19:00etara egingo da eta ez da beharrezkoa aurretik izena ematea. Bestalde, mintegian parte hartzen ez duenak aukera du orduetegi horretan nabigatzeko.

IRURA ▶

## Bizitzako ezbeharrei aurre egiteko hitzaldia

Gaur arratsalderako hitzaldia antolatu dute Zaharren Biltokian. *Psikologia bizitzako ezbeharren aurrean* izena du solasaldiak eta hizlaria Xabier Arrazola izango da. 17:30ean hasiko da biltokian bertan Kutxaren laguntzaz antolatutako hitzaldia.

IRURA ▶

## Maiatza Kulturala antolatzeko bilera gaur udaletxean

Maiatza Kulturala antolatzeko Festa Batzordearen bilera antolatu du Udalak gaur 19:30ean udaletxean. Hitz egingo diren gaiak Maiatza Kulturalako egitaraua eta mus txapelketako parte-hartzaileen zozketa izango dira.



**LIZARBI**

Kutxa, mahai, aulki etab.  
Altzariak • Zurgintza orokorra  
Tailakesuz eginak Zaharkinen berritzatza

San Esteban auzoa  
Tel./Faxa: 943 650 063 • TOLOSA

AMEZKETA ▶ INGURUMENA

# Sei zuhaitz berri herrian

Hiru gaztainondo eta hiru intxaurren landatu zituzten atzo Zuhaitz Egunean Amezketako eskolako gaztetxoek San Martin parkeko zelaietan

NOELIA LATABURU

Eskualdeko hainbat herrialde-tan antolatu dute dagoeneko Zuhaitz Eguna eta ehunka dira guztira egun honen harira landatutako zuhaitzak: urkiak, haritzak, arteak, intxaurrenondoak... herri hauen ekimenei esker egun gure lurretan hazten dira.

Atzo Amezketak hartu zuen lekukoa. San Martin parkeko kanpan bildu ziren Udaleko hainbat ordezkari eta herriko eskolako ikasle eta irakasleak, bertan burutu baitzuten sei zuhaitzen landaketa. Lehen Hezkuntzako ikasle guztiek hartu zuten parte ekimenean, 55 guztira, sei maila ezberdinetan banatuak. Ikasgela bakoitzak zuhaitz bana landatu zuen: hiru gaztainondo eta hiru intxaurrenondo.

Aitzurrarekin abilezia erakutsi zuten gaztetxoek, bai eta auzardia ere, eta gogotsu landatu zuten talde bakoitzak bere zuhaitza. «Aurretik landareen gaineko ikasgai batzuk landu ditugu eskola orduetan», azaldu dute irakasleek. Zuhaitz Egunaren helburu nagusia, beraz, ingurumena zaintzen eta errespetatzen ikas dezaten da.

## Merezitako saria

Neska-mutikoez gogor egin zuten lan goizetik. 09:30ean abiatu ziren oinez San Martin go zelaia aldera. 10:30ean hantxe ziren den-denak lanerako prest. Hiru gaztainondoak eta hiru intxaurrenondoak landatzen lagundu zuten gogoz. Ondoren ailegatu zitzaizkien, hain zuzen, merezitako saria. Orduerdin



Herriko eskolako lehen hezkuntzako 55 ikasleek 3 intxaurrenondo eta 3 gaztainondo landatu zituzten. N. L.

guru igaro zuten jolasean parke berrian. Eta indarrak berreskuratzeko hamaiketako goxo-goxoa prestatu zieten irakasleek 55 ikasleei. Behin sabelak ondo bete ostean, eta beste tarte batez San Martinen jolasean igaro ostean, herri-runtz abiatu ziren eskolako neska-mutilak, irakasleak lagun.

Zuhaitz Eguna antolatu duten eskualdeko herri guztien xedea —ingurumenarekiko errespetua eta garrantzia lantzearena alegia— betetzeko urrats garrantzitsua lortu da azken hilabeteetan. Garrantzitsuena orain «zuhaitzekiko errespetua egun honetara ez mugatzea» dela aitortu dute egun honen antolatzaileek.



Indartsu aritu ziren haurrak egurrak hondoratzeke. N. LATABURU

## San Martin parkeko aisi-joko berrien estreinua

Amezketako Udalak San Martin parkea berritzeko proiektua du. Dagoeneko hasi dira lehen obrak bertan, Eusko Jaurlaritzak 2.000 biztanle beherako herriei eskaintzen dieten dirulaguntzak jaso ostean.

Parke honetan aurretik zegoen umeentzako jolasgunea arriskutsuegia zela eta, aldatu egin dute. Lau elementu berri ezarri dituzte. Horrela, atzo herriko eskolako umeek kolonpio eta bestelako aisi-joko berrietan jolasteko aukera izan

zuten, zuhaitzen landaketaren ostean. Ederki igaro zuten goiza bertan denek ere.

Hala ere, San Martin parkean burutuko diren aldaketak ez dira jolasgunearen berrikuntza honekin amaitu. Parkeko kanpa inguratzen duen hesiak ere aldatu dira, aurreko arantzanunak ekidinez.

Datozen hilabeteetan, halaber, obra berri bat burutuko da parkearen sarreran, bertara igotzen diren autoentzako aparkaleku bat eraikitzeko helburuz. ◀



Kolonpio berriak estreinatu zituzten landaketaren ostean. N. LATABURU

AMEZKETA ▶

## 'Diarios de motocicleta' filma ikusgai zine-klubean

Gaur 21:00etan gela polibalentean izango da ikusgai, bizkotxo eta txokolatearekin



Filmaren kartela. HTZA

N. LATABURU

Gaur Amezketako zine zikloaren emanaldi berria eskainiko dute, 21:00etan, gela polibalentean. Aste honetako filma *Diarios de motocicleta* izango da, iaz estreinatutakoa. Astero bezala, gauekoan ere txokolate eta bizkotxoak banatu dira bertaratuen artean.

Gael Garcia Bernal, Jaime Azzcar, Rodrigo de la Serna, Ulises Dumont, Facundo Espinosa, Susana Lanteri, Mia Maestro, Mercedes Moran, Jean Pierre Noher eta Gustavo Pastorini dira 128 minutuko iraupena duen luzemetraia honen protagonistak, Walter Salles zuzendariaren gidaritzapean eta Robert Redforden ekizpenarekin.

Filmak Ernesto Che Guevarak Hego Amerikan barrena eginiko bidaiaren berri ematen du, bere egunkarian oinarrituta. 1952. urtean kartzela da, noiz bi gazte, Ernesto Guevara eta Alberto Granado bidaiari bati ekiten diote, motozikleta batean. Urte honetan, Ernesto 23 urtetako medikuntza ikaslea da, leprologian berezitua. Alberto, berriz, 29 urteko biokimikoa da. Filmak bi mutiko hauen jarrapena burutzen du. Bi lagunek Buenos Aires hiria atzean uzten dute 1939ko Norton markako motozikleta bat gidari dutela. Euren garraioa izorratuko den arren abentura ahaztezi-na biziko dute elkarrekin.

LEITZA ▶ GIZARTEA

# Harrobien gaineko herri kontsultaren prozeduraz erabaki

Nafarroako Gobernutik idatzizko jakinarazpena aiatu ez denez, herri kontsultaren eguna orduan ziurtatuko da

JAIONE ASTIBIA

Madrileko (Espainia) Ministro Kontseiluak lehengo martxoaren 11n harrobien inguruko herri kontsulta baimendu eta erabaki harren berri ematen zuten jakinarazpena lehengo astean iritsi omen zen udal-terera, astearte iluntzean burutu zen batzarrean jakitera eman zuten. Horrela, herri kontsulta hau egiteko baliatzen ari diren legean oinarrituta, urriaren 28ko 27/2002 Foru Legea da hori, bost eguneko epean egin beharreko omen zen herri kontsultaren deialdia (hurrengo 30-45 egunen burura), eta ustez, egun horretan bertan bukatzen omen zenez

horretarako epea, hori dela eta egin omen zuten batzarreko aparteko deialdia.

Baina, herenegun argitu zuten, deialdia prestatzeko Nafarroako Gobernuarekin egin dituzten bileretan adierazi denez, «baimenaren jakinarazpena Nafarroako Gobernuko lehendakariarengandik jasotzen duen momentutik» hasten omen da bost eguneko epe hori eta ez lehenago. Han esan zuten, «baimena sinatuta dagoela» badakiten arren, oraindik ez omen da udal-terera iritsi. Gauzak horrela, batzarrean bezperan, Herri Kontsultaren Aldeko Talde Sustatzailea eta talde politikotako ordezkariak egin bileran

eskuartean izan zituzten data posibleak behin idatzizko jakinarazpena jaso ondoren ziurtatzeko geratzen zirela adierazi zuten.

Ez horrela, harrobien inguruan egingen den herri kontsultaren aurreko kanpainaren iraupenari zegokionez, 15 eguneko izatea berretsi baitzuten, aitatutako bileran adostu omen zuten bezala; eta modu berean, kanpaina instituzionalaren nondik-norakoei zegokionez ere, herri kontsultaren ezaugarrien berri emanez (ez gaiaren inguruan) esku-orriak banatzea, bozka-paperak etxe guztietara iristaraztea... eta bestelako neurriak erabaki zitzuztelarik.

LEITZA ▶ IKURRINA



Marxoan egin zen udalbatzarrean herritar asko bildu zen. J. ASTIBIA

## Ikurrinari buruz galdera egiteko asmoa azaldu

Udalbatzarrean mozioa aurrera atera dute, nahiz zehaztapen gehiagorik ez egin

J. ASTIBIA

Ikurrinari buruz galdeketa egiteko EAk lukeen asmoa azaltzen zuen talde horrek berak aurkeztutako mozioa aurrera atera zen herenegun burutu zuten aparteko udalbatzarrean, une horretan aretoan zegoen alderdi horretako ordezkari bakarraren eta Aralar taldeko lauren aldeko bozkekin, nahiz azken talde hau «mozioaren sarreran jartzten duenarekin ados ez egon», bertan adierazi zuten.

Izan ere, EAko ordezkari den Lazkanok irakurritako mozioan, aurrena Nafarroako Gobernuak Ikurren Legea delakoa betetzera «behartu» ditzutela, baieztatu ondoren, «Aralar taldearen jarrera salatuz» jarraitu baitzuen, non-bait aitatutako sententzia horren inguruko informaziorik ez ziotelako eman behar zen garaian, «gaia ongi aztertze denborarik ez» izanez. Adierazpen hauetxez izan ziren, otsailaren 24an alkatetzako aginduz ikurrina Leitzako

udal-tereko balkoitik kentzearen aldeko jarrera azaldu zuten bi taldeen ez-adostasunaren arrazoi. Alkate dagoen eta Aralarreko ordezkari lanak ere egiten dituen Saenz beraren esanetan, taldearena ez baina, «errua izatekotan gainera alkatearena da», gaineratu zuten.

Salbuespen hori eginda, bi talde horiek bat egin zuten, EAren idatziarekin. Galdeketa emaitza «errespetatuko» dutela ere baieztatu zuten.

Horrela, bada, besteak beste ikurriaren gainean galdeketa egiteko asmoaren berri agertzen zuen mozioa ontzat eman zuten, baina ez, ordea, UPN taldearen aurkako iritzia jaso gabe. Beraien esanetan, herri kontsultak «ordezkariak zer egin ez dakitenean egin behar dira», argudiatuz. Eta kasu honetan, beraiek postura argi dutela zioen, ikurrina ez dutelako Nafarroako ikur legezkoztat. Edozein moduz, gehitu zuten, nola ulergaitza egiten zaien, bat-batean eserlekuak nahiago izatea ikurrina baino.

LEITZA ▶ KIROLA

## Barriola Buruz Buruko Txapelketan bihar hasiko den zalantzan dago

Txurmioan min hartuta dago eta gaur erabakiko du jokatu duen

J. ASTIBIA

Abel Barriola leitzarrak bihar ekin behar lioke aurtengo Buruz Buruko Pilota Txapelketari, Azkoitian 22:30etik aurrera iragarrita dagoen jaialdian, baina atzo pilota aukeraketa saioan azaldu zuenez eta komunikazio iturri desberdinen arabera «gandean txurmioan eta ingu-

ruan mina hartu» omen zuten eta ondorioz, ez omen da bate-re ziorra, ostiraleko partidurretara joanen denik. Horrela, bada, zalantzan dago ostiraleko jaialdiaren ospakizuna. Hain justu, gaur emanen omen du erabakiaren berri, Abel Barriola pilotariak berak.

Leitzarrak Sebastian Gonzalez izanen luke aurrez aurre,

Gurea pilotalekuan. Garaileak, Xala izanen du zain.

Txapelketa honetan parte hartzen ari diren bost txapel-dunetako bat, gogoratu behar da Abel Barriola bera dela, 2002an berak eskuratu baitzuten sari preziatua.

Orain, ordea, txapelketan parte hartuko duen ala ez gaur zehaztuko du.



8 finalistak  
argazki  
hitza lehiaketa

igandeko egunkarian  
argitaratuko ditugu,  
zuek irabazleak aukeratzeko

Argazkiak [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)  
webgunean ikus ditzakezu

1. SARIA: Afari eder bat 2 lagunentzat Berrobiko Iriarte Jatetxean
2. SARIA: Adunako Zabala sagardotegian 2 lagunentzako afari eder bat
3. SARIA: Mahala baserriko produktu naturalen sorta aparta

**Harpidedunei banatua** ▶ 2005eko apirilaren 14a, osteguna ▶ III. urtea

GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

12

hotzena

09

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA**  
(zalantzak, harpide egiteko...)

**943 30 43 46**

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Amezketeta.** *Diarios de motocicleta* filma ikusgai gela polibalentean 21:00etan. Bizkoboa eta txokolatea banatuko dituzte.

**Ibarra.** Maite Frankok Hans Christian Andersen-en ipuinak kontatuko ditu bere jaiotzaren 200. urtemugan Kultur Etxean 17:30ean. 4-9 urteko haurrei zuzenduta dago.

**Ibarra.** Xepla elkartearen 25. urtemugako liburuaren aurkezpena 20:00etan Kultur Etxean.

**Ibarra.** Hilaren 16rako Xabierren artea antolatuta du Bizi nahi jubilatuta elkarteak. Izen-ematea: elkartean, 11:00-13:00.

**Ibarra.** *Feminismoaren ekarpenak marxismoan* hitzaldia eskainiko du gaur Maite Segurok 19:00etan Gaztebaxean, Apirila Gorrian.

**Tolosa.** Datozen sanjoanetan Bordondantzan ateratzeko entseguak gaur hasiko dira, 20:30ean Igarondo igerilekuan. Ostegunero izango dira.

### ERAKUSKETAK

**Alegia.** Luis Mari Nuñezen koadroak jubilatuen tabernan.

**Belauntza.** Iñaki Edrosoren argazkiak Kultur Etxean.

**Tolosa.** Kubako ikasleen pinturak Lanbroan.

**Tolosa.** Kubako pintore baten lanak Frontonen.

**Tolosa.** Jose Antonio Gorgojo. Sorrón dendan.

**Tolosa.** Ana Jesus Ansorenaren zeramikak Saikin tabernan.

**Tolosa.** Mikel Azpillagaren koadroak Aranburun.

**Tolosa.** Aitor Ruiz de Eginoren eskulturak Aranburun.

## ARGAZKI LEHIAKETA ▶

### AMOROTO (BIZKAIA) ▶

**Aitzol Elizaran (Anoeta).**

«Benetan, Amoroton atera nuen argazkia. Bertan mobilette delako motorra ikus dezakegu mendiz inguratuta, eta honek efektu polita egiten duela iruditzen zaigu», dio anoetar honek ETB2ko *Vaya semana* saioak famatu egin duen herria aipatuz.



### CABO DE GATA (ALMERIA) ▶

**Jexus Bernabe (Villabona).**

Cabo de Gata naturguneko Isleta del Moro herrian atera du argazkia Villabonan bizi den tolosar honek. «Argazkia Picos del Fraile eta arrantzaleak ikusten dira», azaltzen du.

## AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**  
Miren Aranalde Ramiro  
(Berastegi). Gaur urtebetze. Zorionak eta muxu bat ebekoen partez.

**HITZA, zorion agurren**

**Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zorientzeko, etorri:**

**HITZAren egoitzara:**  
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**  
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!**

Telebistako SPOTAK

APIRILAK 14, OSTEGUNA  
tve 19.45tan

APIRILAK 15, OSTIRALA  
tve 19.45tan

**DIRU LAGUNTZA / AYUDA ECONOMICA**  
Euskadiko Kutxa / Caja Laboral  
3035 0083 20 0830096411

**DEMOKRAZIA**  
**eta BAKEA**  
**BOZKATU**

**EHAK**

**BIHAR**

**BILBO GASTEIZ**

Plaza Berrian  
arratsaldeko 7.30tan

Matxete plazan  
arratsaldeko 8.30tan